


Jose Luis Elkoro:
«Eusko Alkartasuna
PSOEren morroi
bihurtu da» / 5



Mila milioi pezeta gal
ditzake aurten
Papelera Españolak,
iaz bezala / 16



Arraza sailkapenik ez
dago gaurdanik
Hegoafrikan, ofizialki
behintzat / 21

EUSKALDUNON

Egunkaria

Igandea, 1991ko ekainak 30 / II. urtea / 175. zenbakia / Salneurria: 75 pta. / 4,5 libera

DANTZA

Nafarroako Dantzari Eguna Agoitzen ospatuko da gaur

Gaur ospatuko da Agoitzen Nafarroako Dantzari Eguna. Iruñea, Berriozar, Burlata, Bera, Fustiñana, Zangoza, Faltzes, Zarakaztelu, Lizarra, Tuteria, Agoitz eta Leitzako taldeak bilduko dira egun osoko dantza emankizunak eskaintzeko. / 27

Independentziarik gabe geratu dira oraingoz Kroazia eta Eslovenia

Jugoslaviako errepublikak negoziatzen hasi dira, Kroazia eta Esloveniari independentzia aldarrikapenak hiru hilabetez atzeratu eta gero. Horren truke, Serbiak onartu egin du kroaziar separatista bat, Stipe Mesic, lehendakari federalean egotea. Hala ere, atzo arratsaldeko bostetan lehendakaria izendatzeko Jugoslaviako lehendakari kolegiatuak egin behar zuen bilkura atzeratu egin zuten azken orduan.

Suetena praktikan egon arren, inzitente bakan batzuk izan ziren atzo Eslovenian, eta hiru soldadu federal hil zituzten mugako inguruan. Tentsioaren baretzean Europar Elkar-tearen artekaritzak baino, indarraren erabilpenak izan du eragina. Esloveniaren erasoari aurre egin, eta amore eman behar izan du oraingoz.

Milan Kucan lehendakari esloveniarrak ohartarazi duenez, «Esloveni-

niak ez dio uko egingo independentziari, nahiz prest egon bereizketaren faseak Jugoslaviarekin negoziatzeko». Kucanek tonu dramatikoaz deskribatu zuen egoera: «Eslovenia aldi batean anexionatu ahal izango dute, beren buruzagiak hil ere bai, ezagutu ditugun plan batzuek programatu bezala, baina horren ondoren berriro hasiko litzateke prozesu demokratikoa».

EEEko Troiak Jugoslavian arrakasta izan duela eta, pozik zeuden «hamabiak» EEEko Kontseilu amaieran. Gianni de Michelis ordezkari italiarra ez zen hain alai azaldu. Troika Beograd eta Zagreb-era joan zen gerra giroa baretzeko asmoz eta errepublika hauen eta Serbia eta Federaziokoaren ordezkariekin hitzeginda suetena lortu zen, baina de Michelisek «egoera benetan korapilatsua da eta muturreko jarrera asko daude» adierazi zuen. / 20-21



Bilboko manifestazio handiarekin

burutu zen atzo arratsaldean Amnistiaren aldeko Batzordeak, Ajir, Car, Ahaideak, Gureak eta Errefuxiatuen aldeko sustenguz Komiteak taldeek antolatutako «Ttipi-Ttapa 91» ibilaldia. Euskal preso,

errefuxiatu eta deportatu politikoez elkartasuna adieraziz ekainaren 20an hasita 10 egunez herri eta hiri nagusiak zeharkatu ditu ibilaldiak, eta JOSE SIMALEN argazkian ageri denez, aurrean preso familiar-tekoak zihozten manifestazioarekin amaitu zen. / 4

EAJ, EA eta EEK Oliveriren lana defendatu dute


Eusko Jaurlaritzan osatzen duten hiru alderdietako hezkuntza arloko arduradunek, Txomin Aurrekoetxeak, Inmaculada Bonetak eta Koro Agotek, Hezkuntza Sailak daraman politikaren aldeko agiri bat plazaratu zuten atzo. Ikastolen irakaskuntza baimenari eta iazko likidazioei dagokienez hartutako erabakiak onetsi dituzte idatzi horretan, oraingo hiru irakaskuntz sareen arteko harremanik eza eta kompetentzia amaitzea nahi dutela adieraziz. Euskal Autonomi Elkartean «hezkuntza eredu propio bat» lortzeko, dauden sareen arteko akordio zabal bat lortu behar dutela diote agirian. / 9

Baltica ez hustutzea erabaki zuten Bilboko portuko langileek

'Baltica' untziko hondakin toxikoen deskarga lana ez egitea erabaki zuten atzo Bilboko portuko langileek. Hondakin toxikoen inguruko istiluetan herenegun atxilotutako Greenpeace-ko bost kideak aske utzi zituzten, atzo epaitegian deklaratu ondoren.

'Baltica' untzia deskargatzeko lanak goizean goiz hasi ziren atzo Santurtzin, baina untziko hondakin gehienak —1.500 tona inguru— lehorrean zeudela, lanean ez segitzea erabaki zuten langileek. Orduan 200 tona hondakin baizik ez ziren gertzen 'Baltica' barruan.

John Bucket-ek, 'Greenpeace-aren' nazioarteko garraio toxikoen kanpainako koordinadoreak, materiala garraiatzeko modua kritikatu zuen: «Beste leku batzuetan, ilargira joateko bezalako jantziak erabiliko lirateke. Hemen, berriz, ez». / 8



Baltica untzia.

JOXE SIMAL

Schengen itunaren ondorioez kezkatu euskal alderdiak

Elkarte Europarreko mugen «desagertzea» helburu duen Schengen akordioak ekarriko duen kontrol polizialaz kezkatuta azaldu dira Karmelo Landa eta Joseba Azkarraga europarlamentariak. Landaren iritziz «PSOEren gobernuak errefuxiatu eta exiliatuak jarraitzeko interesa du». Kontrol legislatiborako formulak bilatu behar direla dio Azkarragak, «gobernuak iluntasunetik eta jarrera ez demokratikoetatik jokatzea eragozteko».

Juan Mari Andres EEko lehendakariarentzat, etorkinekiko elkartasun gutxi erakusten du akordioak, Europarako mugak itxi egiten bait zaizkie bere iritziz. / 6

BESTERIK

G I Z A R T E A

Sanferminak astebetez aurreratu ziren Peñen Egunarekin / 10

E S T A T U A K

Konpetitibitate pakturako lehen bilera hirukoitza uztailaren 10 eta 11n izango da / 18

N A Z I O A R T E A

Estatu Batuek bonbardaketekin mehatxatu dute Irak berriro ere / 22

K I R O L A

Stevanovic jugoslaviarrak Osasunarekin sina dezake ondoko egunotan / 23

Tourra hilaren 18an Euskal Herriatik iragango da / 23